



**2008KO ABENDUAREN 10EKO
TOKIKO GOBERNU BATZARRA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila bi mila eta zortziko abenduaren hamarrean, arratsaldeko seietan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Patxi Albisu Estensoro Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Felix Urkola Iriarte, Amagoia Naldaiz Mingo eta Xanet Barreras Jauregi.

Idazkari lanetan Izaro Gurrutxaga Auzmendik dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkeztzen da 2008ko azaroaren 12ean egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

II.- FAKTURAK.-

Ondoren Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertzen dira. Aztertu ondoren 2008ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 11 zbk.dun fakturen zerrenda, bere espedientearen dagoena, HIRUROGEI MILA LAUREHUN ETA HIRUROGEITA ZAZPI EURO ETA HOGEITA HAMAR ZENTIMO (60.467,30 €)takoa onartu eta ordaintzea erabakitzen da.

III.- SAN PRUDENTZIO ESKOLA ERAIKINAREN AURREKALDEKO URBANIZAZIO LANEN 3. OBRA EGIAZTAGIRIA.-

San Prudentzio Eskola eraikinaren aurrekaldeko urbanizazio lanen obra zuzendari-tza daraman Udal Arkitekto Teknikoak lanen 3. obra egiaztagiria aurkeztu du. Egiaztagiriaren zenbatekoa HOGEITA HEMEZORTZI MILA EHUN ETA LAUROGEITA HAMAIIKA EURO ETA HIRU ZENTIMOKOA (38.191,03 €) da. Lan hauek Orsa, S.L. enpresa ari da burutzen.

Tokiko Gobernu Batzarrak, gaia aztertu ondoren, eta bertaratutako guztien adostasunarekin, obra egiaztagiri hauek onartzea erabakitzen du.

IV.- GIZARTE ZERBITZUETAKO LAGUNTZAK.-

Gizarte Zerbitzuetako Batzordeak aurkeztutako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartzen ditu:

Etxeko Laguntza Zerbitzua.-

- 155 zbk.dun esped.: Zerbitzuan baja ematea 2008ko urriaren 27tik, heriotzagatik.
- 179 zbk.dun esped.: Zerbitzuan baja ematea 2008ko azaroaren 19tik, bere borondatez.
- 08-011-008 zbk.dun esped.: Zerbitzua ematea astean 5 egunez, eguneko 3 orduz. Onuradunaren ekarpena %8a izango da.

...///...

...///...

- 08-011-009 zbk.dun esped.: Zerbitzua ematea astean 5 egunez, eguneko 1,5 orduz. Onuradunaren ekarpena %2a izango da.

Gizarte Larrialdietarako laguntzak.-

- 755 zbk.dun esped.: Etxebizitzaren alokairua ordaintzeko 185,00 € ematea abenduan eta etxebizitzaren mantenimendurako 92,5 €. Eskatutakoaren %100a da.
- 825 zbk.dun esped.: Etxebizitzaren alokairua ordaintzeko 203,00 € ematea azaroan eta abenduan. Eskatutakoaren %73a da.

Telealarma zerbitzua.-

- 155 zbk.dun esped.: Baja 2008ko urriaren 27an, heriotzagatik.

Erretiratu eta pentsiodunen elkarteari dirulaguntza.-

- "Orobione" Erretiratu eta Pentsiodunen elkarteari 2008 urterako 7.536,00 € -ko dirulaguntza ematea, San Miguel egunerako eta jardueren garapenerako.

Entitateei dirulaguntzak.-

2008 urterako entitateei emandako dirulaguntzak honela banatzen dira:

- ATZEGI: 452,00 €
- ODOL EMAILEAK: 1.118,00 €
- GURUTZE GORRIA: 714,00 €
- GIZAKIA HELBURU: 1.115,00 €

V.- KULTURAKO DIRULAGUNTZAK.-

- Tokiko Gobernu Batzarrak 2008. urtean egindako jarduerengatik Lazkaoko kultura taldeei guztira HOGEITA BAT MILA HIRUEHUN ETA BOST EUROKO (21.305 €) dirulaguntza ematea erabakitzen du. Dirulaguntzen banaketa ondorengoa da:

- ANTZAR GAZTEAK TXARANGA: 1.960 €
- MONJA ZISTERTARRAK: 395 €
- LAZKAO ABESBATZA: 800 €
- AZKI: 330 €
- RWANDA: 700 €
- ANSOATEGI: 6.000 €
- ZAWOPI: 3.700 €
- KANTAKA: 3.500 €
- XANBE: 1.500 €
- OROBIONE ABESBATZA: 120 €

Zawopi Taldeari onartutako dirulaguntzaz gain, Taldeak antolatutako ekintzak burutzen laguntzen dutenei Udalak afari bat eskeintzea erabaki da.

...///...



...///...

VI.- EUSKARAKO DIRULAGUNTZAK.-Kanpoko errotulua euskara hutsean jartzeagatik dirulaguntzak.

Lazkaoko zenbait komertzio berrik kanpoko errotulua euskara hutsean jartzeagatik egingako dirulaguntza eskaeraren aurrean eta Euskara Batzordearen proposamenaren aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, ondorengo dirulaguntzak ematea erabakitzen du:

- "Kuttun" denda: 300 €
- "Nerea" jatetxea: 300 €
- "Ipotx" arropa denda: 300 €

Goierriko Euskal Eskolari 2. zatiaren ordainketa.

Gerriko Ikerlan Bekako sariaren 2008ko gastuei aurre egiteko, Euskara Batzordearen proposamenaren aurrean, Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, Goierriko Euskal Eskolari 2. zatiaren BI MILA BOSTEHUN EURO (2.500 €)-ko ordainketa egitea erabakitzen du.

Gerriko Ikerlan Bekaren antolatzaileak Lazkaoko Udala, Maizpide Euskaltegia eta Goierriko Euskal Eskola dira.

VII.- KIROLETAKO DIRULAGUNTZAK .-

- Aptzar Korrikalariak-ek Lazkaon abenduaren 14ean ospatuko den Eskolarteko eta Gipuzkoako federatu mailako Kros txapelketarako egindako dirulaguntza eskaeraren aurrean eta Kirola eta Gazteria Batzordearen proposamenaren aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, BEDERATZIEHUN (900 €) euroko dirulaguntza ematea erabakitzen du.

VIII.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, arratsaldeko zazpiak laurden gutxi direnean nik, Idazkari lanetan ari naizenak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

